Miguel Benlloch
***DE RERUM NATURA. Quien canta su mal espanta*, 2016**
Argazkiak/Fotografías: cortesía del artista y Hedonismo Crítico. El Palomar. Barcelona, 2016.

DERERUMNATURA

GAIXOTZEAREN ETA SENDATZEAREN KRONIKA

Nire aitaren klinikako itxarongela gaixoz beteta zegoen goizero, haiekin etortzen ziren senitartekoek, berriz, ile-apaindegian bezala hitz egiten zuten euren artean –bide batez, halako bat zegoen goiko solairuan–, murmurioak pixkana esnatzen ninduen. Itxarongelaren ondoan egiten nuen lo, korridore bat tartean; Alpujarreko gortina luzearen atzean zegoen nire gela, han esnatzen nintzen egunero, inguruan neuzkala batzuk kexaka eta ozen hizketan, eta beste batzuk beren kontuak kontatzen: beren gorputzen kontuak, zenbat puntukoak ziren beren orbainak, zer mailakoak ziren, zer -nolako oinazeak pairatu zituzten, zer jardun egin zituzten goizean herrian, elikagaien prezioa, egiteke dauden mandatuak; bizitzaren kontuak, denak ere nire ametsekin nahasten ziren, eta jakinarazten berehala agertuko zela aita kontsultan eta seguru asko ez zitzaiola gustatuko ni ohean ikustea goizeko hamaiketan, bera gaixoak artatzen aritu baitzen aseguruan, goiz-goizetik. Alferkeriaz altxatzen nintzen eta aretoa gurutzatzen nuen, gaixoak natural-natural agurtuz, haien artean esnatzeko ohiturak ematen duen naturaltasunez. Ibilian nindoala begiratu egiten ninduten, mamu bat banintz bezala, mamu hits bat, betzuloekin, espero izan gabe agertzen den mamu bat, beren ezbeharren hitzak etenez[1].

2002ko azaroa zen, Sevilla, Pumarejo plazako osasun-zentroa. Lehenengo aldia zen osasun-zentroa hartara joaten nintzena, itxarongela utzi eta kontsulta hartan sartu nintzen, non sendagileak, hotz eta eraginkor, analisiaren emaitzaren berri eman zidan: C hepatitisa ei neukan, oso-oso gutxi ezagutzen nuen gaitz bat. «Ezingo dut gehiago edan», horixe bakarrik jo nuen segurutzat. Osasun-zentroko

1 Ed. oh: *DERERUMNATURA. Quien canta su mal espanta* ekintzari buruzko testu bat da hauxe, 2016ko maiatzaren 7an egin zen ekintza hori, *Anarchivo sida* erakusketaren barruan. Orduko hartan, ekintzarekin batera deskribapen hau ekarri zuen artistak: gaixo dagoenaren gaineko informearen informea da. Minaren itzulgarritasunaren gainean egiten den ekintza bat, sinekdoke baten lanak egiten dituen ekintza: gorputz gaixoa da sistema kapital pozointsuak mindu duen mundua. Horregatik aukeratzen da abestea; abestea komunikatzeko, arimaren egoera azaleratzeko eta erronka jotzeko perfekzioaren merkantzia gisa ulertzen den gorputz osasuntsuari. Gorputz gaixoa, gorputz oro bezala, igaroan doan gorputza da. Kontraesankorra, bere baitako ezagutza berrietara irekia, ordenaren eta kaosaren bizitza mugatan estigmatizatzen eta kontsolatzen dena. *DERERUMNATURA. Quien canta su mal espanta* osasun sistema publikoari egiten zaion esker oneko ekintza bat ere bada, itxaropen-guneak sortzen baititu farmazeutika multinazionalen negozio basatien aurrean.

Miguel Benlloch, 2016

kontsulta utzi eta erietxeko espezialistara bideratu ninduten arte bolada bat pasa zen; bien bitartean, gertatzen zitzaidanari buruzko informazioa bildu nuen: odol bidez kutsatu nintzen birusarekin, horrela baino ezin duzu harrapatu. Aspalditik egon zitekeen gaitza nire barruan uzkurtuta eta ulertzen hasi nintzen zergatik izaten nituen halako lanak goizetan altxatzeko, ia alkoholik edaten ez nuen garaian, pentsatzen bainuen berezkoa nuen ahuleziaren ondorio zela. Bat-batean, egun batean gogora etorri zitzaidan hirurogeita hamarreko hamarkadan egin nuen odol-emate bat; garai hartan, ez ziren behar den moduan zaintzen xiringen kontuak, baina, pixkana-pixkana, ez zitzaidan ezer axola, ez modua, ez bidea, ez eta noiz harrapatu nuen ere, neurea zen, nigan zegoen.

Ia oinazerik gabe sartu zen C hepatitisa nire bizitzan, gertukoei kontatzea erabaki nuen, beti egin izan dut hala, onena da, baina komunikazio hori aldi berean ez duzu sekula amaitzen, beti dago zerbait esateko, gorde egiten duzu zeure gorputza zeuretzat jota, norberaren gauzatzat, batasun beti kutsatu eta bortitz hori. Sendatzea, osatzea, abandonatu duzun izaki bat berreskuratzea, besteren eskutan jartzea, gero eta sarriago eta anitzago datozen sendagileak, aurpegira esaten dizutenak zenbateko larriak edo arinak diren gertatzen zaizkizun gorabehera horiek, ezberdinak dira hala ere, bakoitza bere espezialitatean buru-belarri, gehienek gorputzaren zirkuitua baino ez dute ikusten eta gutxitan ematen dizute hitz goxorik edo kontsolamendurik. Eduki nuen lehen espezialista izaki zaputz eta zakar bat zen, hamalau urte joan dira orduz geroztik eta ez dut gogoan egoera zehatzik, baina buruan hegan dabilkit zer-nolako babesgabetasuna sentitu nuen hainbat hilabetez joan nintzen kontsulta hartan; han, gaixotasuna diagnostikatu eta urtebetera, tematu nintzelako eman zidaten osatzeko lehen itxaropena: interferona ribavirinarekin.

Gaixotasunak adierazten digu disjuntzio bat dagoela gorputz autonomoaren eta pentsamenduaren artean, pentsamendua ulertuta toki gisa non zeure gorputza lotzen duzun gizartearekin eta zeure buruarekin, barne-gorputzak, dei diezaiogun horrela, ez du behar lukeen moduan funtzionatzen, bere prozesuak aldatzen ditu, nahiz eta prozesu horiek bazirenik ere ez jakin.

Lojan igaro nuen uda oroitzen dut, eltxoz betea, igarri egiten nituela pentsatu nuen zeren abuztuko lehen astean halako azkura batek hartu ninduen, puntu gorrixka batzuk gogaitzen ninduten duela egun batzuetatik, gehiago ziren egunetik egunera eta niri orokorrean ez didate hozka egiten, baina eltxoak behar zuten izan, hainbeste ziren ezen Betadine ematen hasi nintzen puntu gorrikara guztietan, azal lehorra hidratantez lohitua, akordatzen naiz Cristinak eta beste adiskide batzuek zaindu nindutela, talco hautsak ipini zizkidatela, eta zetazko alkandora hura, botilen berde kolorekoa, jartzen nuela egunero uniforme modura, doi-doi ukitzen baitzidan azala; Joaquínek gorroto du ni alkandora horrekin ikustea, alkandora arrunt bat balitz bezala. Inork ez zuen esan eta nik ez nuen pentsatu gertatzen zitzaidan hura «Sevillako sendagileak ikusi behar lukeela», eltxoak desagertu ziren, seguru nengoen jada botiken ondorioa zela guztia, baina jarraitu nuen botika sendatzailea hartzen, agindutako dosi guztiak, eutsiz eta paracetamola hartuz. Interferonek albo-ondorio ugari ekar zitzakeen eta niri gripe bat baneuka bezala eragiten zidan, neka-neka eginda uzten ninduen gripe bat, baina, aldi berean, etengabe jarduteko premia neukan, xixko eginda amaitu arte.

Uztailean, uste dut 2004an, hamabi hilabeteko tratamenduaren aste batzuk baino eginak ez nituela, Benaguacilera (Valentzia) joan nintzen nire anaiekin. Urtero elkartzen gara bostok nire ama bizi zen etxe horretan; niretzat, plazer bat zen hura –ama zegoela zirudien etxe horretan sartzea–, baina egoera deseroso bilakatu zen; nire umorea biziagotu zen, nire umore txarra, alegia, dena iruditzen zitzaidan gaizki, baita nire ohea ere, lastaira aldatu behar omen baitzitzaion, baina ez zen premiazkoa nire anaiak ere behartzea beren lastairak aldatzera; haiek, egonarriz, lasaitu egin ninduten, lastaira eta somier berri bana ekarriz, nire tupusteko amorrualdiak eramanez. Energia gaixo batek hartu ninduen, hondatutako gauzak konpontzeko beharra neukan, korridoreko pareten behealdeak garbitzekoa, puztuta baitzeuden hezetasunaren ondorioz, eta horrelako lanak egiten nituen bata bestearen atzetik, nire barruan zegoen baina neuk kontrolatzen ez nuen mekanismo batek bultzatuko banindu bezala.

Nerjan ere gertatu zitzaidan halako zerbait, edozein ordutan jaisten nintzen hondartzara antzeko neurria zeukaten harri zuriak biltzera, harean barrena ibiltzen nintzen alderrai altxor haien bila, gero Lojara eraman nituen, neure menditxora, eta harrizko eskailera batzuk egin nituen harri-koskorrekin. Orain eskailerei begiratu eta ontzat jotzen dut jardun obsesibo hura.

Gaixotasunak arroztasuna sortzen du, beste toki batean kokatzen zaitu…

Berriro Sevillan agertu nintzenean, nire egoera ikusita, sendagileak tratamendua eten zuen eta nire lagun sevillarrek denetatik pentsatu zuten ni hala ikusita. Orduan, erietxez aldatzea erabaki nuen; hasieran, birusa desagertu egin zen, baina hurrengo errebisioan jakinarazi zidaten berriro agertu zela, ez zegoela jada tratamendu eraginkorrik. Probak egiten hasi zitzaizkidan, jakiteko ea zergatik nion alergia ribavirinari, ez zen ezer konpondu eta erabaki zuten interferon bakarrik ematea; tratamendu luze eta gogaikarria izan zen, eta, azkenean, emaitza berbera ekarri zuen: interferonaren eraginez, birusa desagertzen zen, baina tratamendua bukatu bezain laster berriro agertzen zen eta gibela hondatzen hasi zen, gorputz biral arraro haren erasoaren ondorioz, zirrosia nirekin batera bizi zen jada, urteak joan ziren kontrolekin batera, eta egokitu zitzaizkidan sendagileek hurrenez hurren esan bezala, nire gibela konpentsatuta zegoen, eta horixe zen garrantzitsuena. Nik Sumial hartzen nuen oraindik, botika horren ondorioz odola ez da hain azkar ibiltzen gibelean zehar, eta, ahal den heinean, eragozten du esofagoko barizeak sortzea, hau da, odolak, bere abiadura dela-eta, ez dezala biderik ireki printzipioz biderik ez dagoen tokietan; hala ere, Sumialak, nolabaiteko lasaitasun bat lortzeko ere erabiltzen baita, nire kontzentratzeko gaitasunari eragin zion, hainbat urtetan hartu nuelako, eta nire memoria hondatu zuen. BNVko lan-errimoari ezin eutsita, baja medikua eskatu nuen.

Ondoren, noduluak etorri ziren, ontzi inbasoreak nola, gaitz berri baten garraiolari, gibelean tumore txikiak zeuden, hainbat neurritakoak, eta horietatik beste handiago batzuk ateratzen ziren, minbizi-sortzaileak izan zitezkeenak, huts egindako biopsiek ez ninduten ataka hartatik atera eta erietxera eraman behar izan ninduten, han, txarrak izan zitezkeela susmatzen zuten noduluak erre zituzten irrati-frekuentzia bidez eta, antza denez, ondo atera zen guztia. Erietxea, bigarren aldia zen jada hark bisita egiten zidala, pijama ipini, ohe mugikorrera igo, osasungintzako langileen paseoak, bisita beti ongietorriak, nire lagunak, nire anai-arrebak eta ni erabat normal, uste dut performanceei esker ikasi dudala hala hartzen gauzak, eta bizitza lotzen dudala erritual batekin, zeina gero eta lasaitasun handiagoz bizi baitut, eta horrek ekarritako oinazerik onartu gabe. *Vete dolor, no me harás daño.*[2]

… gorputzaren bestetasuna egiaztatzea, egiaztatzea beste gorputz bat dagoela gorputzean, horrek borroka bat dakar, ez bakarrik norberak izan beharko lukeena eta ez lukeena ebazteko ikuspuntu fisiologikotik, ez, liskarra sortzen da norberaren kontzientzian bertan, espero ez zuen beste bat sortuz…

Birusarekin batera bizitze honetan etengabe iritsi zaizkit estimutan nauten pertsonen hitzak: «Oso aurpegi ona daukazu, azken aldiz ikusi zintudanekoa baino hobea». Kontsolamendua zen benetan, baina nik harrezkero ispilu bat bezain distiratsua eduki bide nuen aurpegia, hainbeste hobetzearen poderioz; beste iragarki horiek ekartzen zizkidan gogora, garbikariak iragartzekoak-eta, beti garbitzen dutenak aurrekoa baino zuriago, kolore gris zikin batetik abiatu bide ziren, zeren bestela ezin da ulertu nondik atera ote den halako zuritasuna. Bazegoen alderik, hala ere: nire aurpegiari buruzko iruzkinak estimuz eta nolabaiteko gupidaz beterik zeuden; garbikarien iragarkiak, berriz, engainu publizitario hutsa ziren.

Zurrumurruak zabaldu ziren, C hepatitisa sendatzeko botika berri eta eraginkorragoak aterako zirela; konpentsatua eta birrindua neukan gibela, eta botika berririk ez zen iristen. Iritsi zenean eta gutxi gorabehera modu masiboan ezartzen hasi zenean, milaka gaixok itxaropena berreskuratu zuten; hori lortzeko, hala ere, premiazkoa izan zen C hepatitisa zeukaten gaixoak mobilizatzea, gaixoek publikoki erakutsi zituzten beren bizitzak, eta ezinbestekoa izan zen komunikabideak haiekin sentsibilizatzea, gu guztion alde borrokatzen ziren gaixo haiekin; beraz, PPren gobernuak ez zuen beste erremediorik izan, botika horren errezetak emateko zuzentarauak onartzea baino, eta protokolo bat ezarri zen, botika hori lehenik eta behin zirrosiak jotako gaixoei emateko agindua biltzen zuena. Autonomia erkidegoetako osasun-zerbitzuak botika ematen eta ordaintzen hasi ziren, nahiz eta farmazia-multinazionalek salneurri benetan garestia ezarri, izan ere, enpresa horientzat, pertsonak sendatzea merkataritza-kontu bat da, ez besterik, eskariaren

2 Ed. oh.: Hemendik aurrerakoan, paragrafoaren amaieran letra etzanez idatzitako esaldi bat badago, horrek adierazten du autoreak erreferentzia egiten diela lehenago egindako ekintza edo performancei. Paragrafoen artean letra lodiz ageri diren txatalak, berriz, autore honek argitaratu gabeko testuak dira, eta esanahi-geruza gehigarri bat eskaini nahi dute, hipertestu modura.

eta eskaintzaren legeari lotutako zerbait, eta gaixoaren gorputz kosifikatua ere halaxe ikusten dute, etekinak eman diezazkien balore bat nola.

Botika neukan jada, beraz, bere sendatzeko ahalmena %100ekoa zen, esaten zutenaren arabera, ez zekarren albo-ondoriorik eta sei hilabetez hartu behar nuen, zerikusirik ez interferonarekin. Botika hartzen hasi nintzen, begirunez, iritsia zen sendabidea!, parekoen arteko lehia, birusaren eta edabearen artean, barne borroka bat zen eta horri esker itzuli behar omen nintzen orain dela hamalau urte utzi nuen tokira, nigandik urrunduz neke kronikoa eta nire jarduera-orduen kontrola, eta berreskuratuz galdutako lanbidea.

Lehen kontrolak baikorrak izan ziren, ez zegoen birusik eta halaxe izan zen botika amaitu arte. Botika hartzeko agindua amaitu osteko lehen kontrol medikura Joaquínekin joan nintzen, azken urteetan ohi genuen eran, babesa ematen baitzidan egurats gorrian. Esan ziguten birusa berriro agertu zela: %100eko sendabidea %0koa bihurtu zen, itxaropena frustrazio, poza pena, eta iluntzen eta gris bihurtzen hasi zen guztia. Itxarongelan ezagutu nuen beste pertsona bati ere egin zion huts botikak. Erietxe osoko bi kasu bakarrak ginen.

Aspalditik nintzen ikertzeko kasu bat, porrot eginda nengoen, berriro pentsatuz ea nola birsortu, ea nondik erreparatu nire bizitza besteen artean; lagunak, anai-arrebak, maite zaituzten eta maite dituzun horiek guztiak aterpe dira, han bilatzen duzu argi lasai bat, datorrena datorrela prestatzen zaituena, datorrena datorrela bizitzeko modukoa izan dadin, zeurekin dagoenaren bihotzean sostenga zaitzan, gorantz egiteko eta egunerokoaren gertakizunak berrosatzeko, espazioari eta geratzen zaizun bizi-denborari dimentsio berri bat emateko. *Tengo tiempo.*

Zenbait hilabete beranduago, beste kontrol batean, botika potenteago bat aipatu zidaten, frogak egin zituzten Granadan ea zein zen printzipio aktiboak uztartzeko modurik aproposena nire kasuari erantzuteko, eta halaxe heldu zen Harvoni, 90 mg ledipasvirrek eta 400 mg sofosbuvirrek osatua. Urtebetez hartu behar nuen, nahiz eta botika hartzeko ohiko epea sei hilabetekoa izan, birusa guztiz akabatu nahi baitzuten. Laugarren tratamendua. 2016ko martxoaren 1ean hasi nintzen. Itxuraz, ez zeukan albo-ondoriorik. Ez neukan fede handirik sendabidean. Kasu arrarotzat jo ninduten.

Harvoni iritsi eta bi hilabetera, beste kontrol-hitzordu bat, eta nik emantzat jo nuen birusa desagertu zela, beti gertatzen zen hori, ohiko erresonantzia eta analisia egin berri nituen. Joaquínekin iritsi nintzen azken urteotako itxarongelara, bera da nire lasaitasuna, 14:30etan sartu ginen, 2016ko maiatzak 10 egun zituen, sendagilearen mahaiaren aurrean eseri ginen eta hark, agurtu ostean, esan zigun tamaina handiko noduluak sortu zirela, eta gaiztoak zirela; kezkatu itxurarekin esan zigun tratamendua eten behar zela, Harvoniak amaitu zuela bere ibilbidea, ezin zigula ezer esan birusaren existentziaz, eskatu zituen analisietan ez baitzen agertzen; aipatu zigun bazegoela zirkular bat, ofiziala izan ez arren sinesgarritasuna handia zuena, eta horren arabera hepatokartzinoma-noduluak dauzkaten gaixoen noduluak izugarri azkar handitu daitezkeela

Harvoni hartzearen ondorioz, halaxe gertatu zitzaidan niri. Gertatu behar ez zen guztia gertatu zen. Hiru egun lehenago Donostian nengoen, *DERERUMNATURA Quien canta su mal espanta* ekintza aurkeztu nuen, Equipo re taldeak antolatutako *Anarchivo sida* proiektuaren barruan.

Sendagileak berean jarraitu zuen, egoera deskribatzen, eta esan zigun C hepatitisaren protokoloa agortua zela jada, ez zegoela osatzeko itxaropenik, pilula aringarri batzuk besterik ezin zizkidala eman, bi bider esan zidan aringarriak zirela, ez zutela sendatzen, soilik bizitza apur bat luzatzen, eta, gainera bazitekeela pilula horiek zenbait albo-ondorio ekartzea: aho handitua, beherakoak, azkura… Joaquínek eta biok elkarri begiratu genion, ezin genuen entzundakoa sinetsi, sendagileak esan zidan ez zegoela zer eginik, itxarotea baino, krisi bat gertatu arte itxaron, hainbat urtez entzun nuen hura amaitu arte: gibel konpentsatua daukazu. *AcuCHILLAd+s.*

…interpretazio konplexuak jartzen ditu martxan, hala nola amaikortasunari buruz, bai eta beste honi buruz ere, nola txertatu gorputzaren aldaketa beste egoera horretan, zeinetatik abiatuta bilatu bizitza bat, ez aingura gisa baizik eta beste bat izatearen kontzientziatik, zeure alde eta zeure ingurukoekin daukazun harremanaren alde, eremu afektiboan, lanean, harremanetan…

Erietxetik atera ginenean, eman berri zidaten botika izugarri hura eskuetan geneukala, Sorafenib izenekoa, elkar besarkatu genuen, negarrez, eta berehala hasi ginen ezinezko normaltasun bat berrosatzen saiatzen. Ez naiz ondo akordatzen ea une horretan bertan aipatu genuen beste iritzi bat bilatzeko aukera, egoera berriaren berri eman nien anaiei, berealdikoak egin zituzten ni animatzeko; egoera hark izugarri larritzen ninduen, hala niregatik nola maite dudan eta maite nauen jendearengatik; edonola ere, orain iruditzen zait badaukadala halako inkontzientzia edo kontzientzia bat eta lasaitu egiten nauela ezbeharren aurrean, egonarriz begiratzen diet gertaerei, uste dut lasaitasun horren sorburua ez dela baikorra naizela baizik eta guztiz kontrakoa, eta eremu horretan, porrotaren eta ezkortasunaren eremuan, hortxe moldatzen naiz, nolabait ere, gertatzen den horretara, pazientzia gutxiko pazientziaz. *Reflexión*.

Pilula aringarriak hartzen hasi nintzen; hasiera batean ondo joan zen dena, gero Sorafenibaren albo-ondorio guztiak agertu ziren, medikuak aipatutako den-denak etorri ziren egunek aurrera egin ahala, ez ditut hemen azalduko, sendatuko ez ninduen botika horrek sekulako oinazea ekarri zidan, iragarritako krisia berandutzeko baino balio ez zuen botika horren ondorioz gehiago sufritu nuen hogei egunean, botika hartu aurreko urte guztietan baino, ahotsa ere kendu zidan.

2016ko ekainaren 6ean han eserita nengoen jada nire anai Manolorekin, Brizeño doktorearen aurrean, Kordobako Reina Sofía erietxean; senitarteko baten bidez lortu nuen hitzordua harekin eta haren taldearekin. Hitzorduaren aurretik analisiak egin zizkidaten nire egoera orokorra ikusteko; halaxe joan zen hitzordua: doktoreak kontatu zidan bere taldeak ebakuntzak egiten zituela gibelean, protokolo ofizialetatik kanpo, orain dela bi urte hasi zirela horiek egiten eta emaitza sinestezinak lortu dituztela, kontatu zidan ebakuntza horiek ez zeudela protokoloan protokoloak oso mantso aldatzen direlako baina behin eta berriro esan zuenez, bere esperientziari eta nire gibelaren egoera konpentsatuari esker, posible zen ebakuntza egitea, masa hepatikoaren %30 erauztea, hala, Harvonik modu ikusgarrian garatutako hepatokartzinomadun noduluak ezabatuko lirateke; ebakuntzan, laparoskopia erabiliko lukete, hots, teknika ez oso agresibo bat, ebaki txikiak egingo lituzkete nire gorputzean eta hortik sartu tresna sofistikatu eta ñimiño batzuk, nire gorputzean barrena gidatuko dituztenak ordenagailu bidezko irudi-zirkuitu bati esker; zilbor inguruan egindako ebaki batetik aterako lukete gibel-puska erauzia. Ebakuntzak hainbat ordu iraungo luke, laparoskopia teknikaren ondorioz, baina errehabilitazioa oso azkarra da; jakina, ez zidan ziurtatu birusa desagertuko zenik baina bai esan zidan nire bizitza-kalitatea ez zela izango inolaz ere azken urteetakoa bezalakoa, non denbora eta espazioa neurtzen genituen nire gorputz ahularen erresistentziaren arabera. A!, eta Sorafeniba kendu zidan, xixko eginda uzten baitzidan, eta izugarri poztu nintzen.

…gaixotasuna bere kabuz ekiten duen gorputz bat da, sakabanatu egiten dena eta derrigortzen zaituena berari aurre egitera, hainbat eta hainbat erreakzio barneratuz, bat bera ere baztertu gabe, amorrua, kontsolamendua, afektua, itxaropena eta etsipena: bizi bide bat...

Elkarrizketak segurtasun handia eman zidan eta neure baimena eman nuen ebakuntzaren bidea egiteko. Ekainaren 16an, 8:00etan hasi zen ebakuntza, sei ordutik gora iraun zuen, nire anaia-arreba guztiak zeuden, eta Joaquín ere, kirofanoaren barruan neure koinata zegoen, anestesista dena eta hainbeste lagundu didana nire krisia gainditzen, gero, UCIra eraman ninduten 24 orduz, pixkana-pixkana esnatzen joan nintzen eta ondo sentitzen nintzen, ez neukan minik inon, nire lagunak sartu zirenean esan zidaten itzel joana zela dena. Handik astebetera, ekainaren 23an, alta eman zidaten, erietxeko egonaldia estimuz beteta egon zen, bisitan etortzen zitzaizkidanen eta idazten zidatenen estimua, gogoan iltzatu zitzaidana da zer-nolako gosearekin jan nuen, zer-nolako barreak egin nituen eta zenbat pozten nintzen egunez egun, ikusita gero eta hobeto nengoela. Altaren ostean, egun bat igaro nuen nire anaia-arreba Manolo eta Teresaren eta nire iloba Mariaren etxean, eta horren ondoren Teresa eta Amparo Madrilera joan ziren eta ni, berriz, Granadara, nire anaia Victorinorekin, hark zaindu ninduen lehen hamar egunetan, apurka-apurka puntuak kendu zizkidaten, denak desagertu arte. Granada lagunez lepo, han igaro nituen urte guztien poderioz, tentazioa daukat esateko haiek izan zirela nire bizitzako urterik onenak, hainbeste gozatu eta ikasi bainuen. *Tránsito.*

Joaquín, nire lagun mina, ez zen nigandik urrundu segundo bat ere osatzeko bidean nengoenean, batez ere neure lagun Antonio Martínez de Tejeda burmuineko tumore batek jota hil zelako ni erietxean nengoen bitartean, anaiak esan zidan Granadara iritsi eta hiru egunera. Saminez egin nuen negar. Hala ere, hau ez da egokierarik aproposena Antonioz, bere gaixotasunaz, bere izaeraz eta nire bizitzari ekarri dion guztiaz hitz egiteko, dena dela, ondoan sentitzen dut, bere oroitzapena ez baita ahitzen, denbora pasa arren, eta bizirik dago oraindik konpartitu genituen tokietan, Lojan,

Los Caracolaresen, hantxe ditugu-eta geure etxeak biok, espazio komun batean. Han, Lojako nire etxetxoan, nire Alhambratxoan, Ortiz Nuevok *La gallarda* bataiatu zuen horretan, han egon ginen zenbait egunez, han egoteko premia neukan, uztailean sekulako beroa egin zuen arren, lasai nengoen, Joaquín lanean aritu zen mugikorrarekin eta ordenagailuarekin, eta bera arduratu zen geure behar guztiez. Baina sargoria egin zuen eta Cabo Pinora joan ginen, Marbellako kostaldera, Joaquínen eta bere anaien etxera, Mati ere etorri zen, unibertsitateko ikaskidea hirurogeita hamarreko garai urrun hartan, eta gaur arte… Egunek aurrera egiten zuten eta ni gero eta hobeto sentitzen nintzen, bi edo hiru egun pasata itsasoan bainatzeko gai izan nintzen, zauriak estaliz eguzkiak ez jotzeko, apurka-apurka gero eta sarriagotan bainatzen nintzen, zenbat gozatu nuen nire gorputza berriro jaiotzen ikusita, ondasun gisa sentituta, haize alde zebilkigun, eta, halaxe, egunak joan egunak etorri, beste sendagile harekin biltzeko eguna iritsi zen, sendagile hura zeinak azaldu baitzidan protokoloa agortuta zegoela eta kale gorrian nengoela, gutxi gorabehera. Sartu ginenean, ezer begiratu aurretik, esan zigun akats bat zela Kordoban egin genuen hura, protokolotik kanpo zegoela eta ez zela saio bat ere, niri bost axola zitzaizkidan hark esandakoak, beste modu batean sentitzen nintzen, askoz hobeto, hala ere erresonantziaren txostena irakurri zuenean eta analisiak ikusi zituenean aurpegia aldatu zitzaion eta bere buruaz zeukan iritzia gainditu zuenean aitortu zuen askoz hobeto zihoala dena, bat-batean esan zigun «birusa desagertu egin da», bi hilabetean irabazi du Harvoni. Joaquínek eta biok elkarri begiratu genion berriro, harrituta, baina jada ez ginen negarrez ari, pozarren geunden, aurre egin geniolako konponezina zirudien egoera bati. *ReversiblelbisreveR*.

Ezin dut adierazi zer-nolako iskanbila sortu zen nire gorputzean, denbora luze-luzean urruti egon ostean itzuli nahi nuen tokira iritsi bainintzen berriro; badakit itzulera ezinezkoa dela, zerbait aldatu da tokiz eta hamasei urte igaro diren honetan dena dago hondatuago, baina gogora ekartzen dizu galdutako osotasun bat eta bertan geratzen zara, dagoen moduan, zerbait desagertu da betirako, baina ez zure izate memoriarik gabea, hori berrosatu egingo baita, istripu berri baten zain, gaizkiak beti uzten duelako bere arrastoa berrikuntzaren gainean. Ondo eta gaizki, hobeto ondo. Borroka gaitezen denen alde. Pauma bat agertu da.

Loja-Sevilla
2016ko azaroa

Miguel Benlloch, 2016

DERERUMNATURA

CRÓNICA DE LA ENFERMEDAD Y LA SANACIÓN

La sala de espera de la clínica de mi padre estaba todas las mañanas llena de enfermos, los familiares que venían con ellos hablaban como en una peluquería —por cierto había una en el piso de arriba—, el murmullo me iba despertando. Dormía junto a la sala de espera, separado por un pasillo; detrás de la cortina larga alpujarreña estaba mi cuarto, donde despertaba los días entre quejas y conversaciones en voz alta entre unos y otros contando sus cosas: las cosas de sus cuerpos, cuántos puntos tenían sus cicatrices, su dimensión, los dolores que habían soportado, las faenas que habían hecho aquella mañana en el pueblo, el precio de los alimentos, los mandaos por hacer; cosas de la vida que se mezclaban en mis sueños indicándome que mi padre iba a aparecer de un momento a otro en la consulta y que posiblemente no le gustaría verme en la cama a las once de la mañana, mientras él desde una hora muy temprana veía enfermos en el seguro. Holgazaneando me levantaba y cruzaba la sala dando los buenos días a los enfermos con la naturalidad de la costumbre de despertar entre ellos. Me miraban al pasar como quien mira a un fantasma ojeroso y desvaído que irrumpe sin esperar parando las palabras de sus cuitas.[1]

Era noviembre de 2002, Sevilla, ambulatorio de la plaza del Pumarejo. Abandoné la sala de espera del ambulatorio que visitaba por vez primera para entrar en aquella consulta donde la doctora, fría y eficaz, me informaba del resultado del análisis: tenía hepatitis C, una enfermedad de la que apenas sabía nada. «No podré beber más», fue lo único que di por cierto. De la consulta del ambulatorio al especialista en el hospital pasó un tiempo; mientras tanto me informaba de lo que me sucedía: me había contagiado del virus en un contacto sangre-sangre, la única forma en que te puede pillar.

1 N.d.E. Este texto se refiere a la acción *DERERUMNATURA. Quien canta su mal espanta*, realizada en el contexto de la exposición *Anarchivo sida* el 7 de mayo de 2016. En aquella ocasión, el artista acompañó la acción con la siguiente descripción: «Un informe sobre el informe enfermo, una acción sobre la reversibilidad del dolor, el cuerpo enfermo como sinécdoque del mundo dolorido por el capital venenoso, cantar como comunicación, como estado del alma, como desafío a la perfección del cuerpo sano concebido como mercancía. El cuerpo enfermo es como todo cuerpo un cuerpo en tránsito, contradictorio, abierto a un nuevo conocimiento de sí mismo, de los límites del orden y el desorden vital que estigmatiza y consuela. *DERERUMNATURA. Quien canta su mal espanta* también es una acción de agradecimiento a la necesaria sanidad pública que hace posible crear espacios de esperanza frente a la turbia negociera de las multinacionales farmacéuticas. La enfermedad como vida vivida».

Miguel Benlloch, 2016

Podría llevarlo agazapado muchos años y comencé a darle sentido a mi incapacidad para levantarme por las mañanas, cuando apenas bebía alcohol, y que yo achacaba a una flojera intrínseca en mí. De pronto un día me vino a la cabeza una donación de sangre que realicé allá por los años setenta; entonces no se tenía la prevención necesaria con las jeringas, pero poco a poco empezó a no importarme nada, ni el modo, ni la forma, ni cuándo lo había cogido, estaba en mí, era mío.

El VHC entraba en mi vida sin apenas dolor, decidí contarlo a los cercanos, casi siempre lo he hecho, es mejor, pero también es una comunicación que no acabas de terminar, siempre queda algo por decir, lo reservas en un reconocimiento del cuerpo como tuyo, como de uno, esa unidad siempre contaminada y violenta. Sanar, curar, restablecer un ser que has abandonado, ponerte en manos de otros, médicos que aparecen cada vez con mayor frecuencia y diversidad, especialistas en tu enfermedad, conocedores de las técnicas, protocolos, diagnósticos, que te dicen a la cara la gravedad o levedad de los percances que te suceden, pero son distintos, focalizados en su especialidad, la mayoría no ven más allá del circuito corporal y rara vez tienen palabras de afecto o consuelo. El primer especialista que tuve era un ser huraño y tosco que todo lo decía de forma desagradable, hace catorce años y no recuerdo situaciones concretas, solo me vuela en la cabeza el desamparo que sentí en aquella consulta que visité durante bastantes meses; allí, después de un año de estar diagnosticada la enfermedad, y empeñándome en ello, me medicaron la primera esperanza de sanación: el interferón con la ribavirina.

La enfermedad informa de la disyunción entre un cuerpo autónomo y el pensamiento como lugar desde donde relacionas tu cuerpo con lo social y contigo, el cuerpo interno, llamémosle así, se disfunciona a sí mismo, altera sus procesos sin conciencia de que existan.

El verano que pasé en Loja lo recuerdo lleno de mosquitos, me pareció notarlo porque sobre la primera semana de agosto me invadió una especie de picazón, unos puntitos rojos que llevaban unos días molestándome, cada día eran más y a mí generalmente no suelen picarme, pero aquello no podían ser sino mosquitos, eran ya tantos que comencé a poner Betadine en cualquiera de los puntos rojizos, la piel reseca la embadurnaba de hidratantes, recuerdo a Cristina y otr+s amig+s cuidándome, tratándome con polvos de talco, y aquella camisa de seda verde botella que apenas me rozaba y que se convirtió en el uniforme de todos los días; Joaquín no puede soportar vérmela puesta como una camisa cualquiera. Nadie dijo, ni yo lo pensé, que eso que me pasaba «era para que lo viera el médico en Sevilla», los mosquitos habían desaparecido, estaba ya seguro de que eran los medicamentos, pero me seguía poniendo el medicamento sanador, todas las dosis prescritas, aguantando el tirón y tomando paracetamol. El interferón tenía muchos posibles efectos secundarios que en mí se manifestaban como si tuviera una gripe que me agotaba, pero a la vez sentía la necesidad de una actividad constante hasta caer roto.

En julio, creo que de 2004, cuando apenas llevaría unas semanas de los doce meses de tratamiento prescrito, fui unos días con mis hermanos a Benaguacil (Valencia). Todos los años vamos los cinco a encontrarnos en la casa donde vivía mi madre; lo que para mí era un placer —entrar en aquella casa donde ella parecía estar— se convirtió en una situación incómoda; mi genio se desató, mi mal genio quiero decir, todo me parecía mal, hasta mi cama, a la que hacía falta cambiarle el colchón, pero no era necesario obligar a mis hermanos a cambiar también los suyos; ellos, con paciencia, me calmaban trayéndome un nuevo colchón y somier, aguantando mis repentinas iras. Una energía enfermiza se apoderó de mí, necesitaba arreglar cosas estropeadas, sanear los bajos de las paredes del pasillo que estaban abombadas por la humedad y detrás de una faena otra, como movido por un mecanismo que estaba en mí y a la vez no controlaba.

Aquello también me sucedió en Nerja, donde a cualquier hora bajaba a la playa a coger piedras blancas que tuvieran un tamaño parecido, deambulaba por la arena buscando aquellos tesoros que me llevé a Loja, al campito, y con los que hice unos escalones empedrados con los guijarros. Ahora los miro y doy por buena aquella faena obsesiva.

La enfermedad produce extrañamiento situándote en otro lugar…

Cuando aparecí de nuevo en Sevilla, dado mi estado, el médico interrumpió el tratamiento y mis amigos sevillanos pensaron de todo al verme así. Entonces tomé la decisión de cambiar de hospital; al principio el virus desapareció, pero a la siguiente revisión me comunicaron que había vuelto a aparecer, ya no había más tratamiento eficaz. Comenzaron las pruebas para saber por qué era alérgico a la ribavirina, nada se solucionó y decidieron ponerme interferón solo; junto a lo extenso del tratamiento y sus molestias, la conclusión fue la misma: el virus desaparecía con el interferón pero en cuanto terminaba el tratamiento volvía a aparecer y el hígado atacado por ese extraño cuerpo viral comenzó a deteriorarse, la cirrosis ya habitaba conmigo, los años fueron pasando con los controles y, como decían los sucesivos médicos que me fueron tocando, mi hígado estaba compensado, que era lo importante. Yo seguía tomando Sumial, un medicamento para que la sangre vaya a menos velocidad por el hígado y evitar en lo posible la producción de varices esofágicas, lo que quiere decir que debido a su velocidad la sangre no se abra sitio por otros caminos que en principio no existen; pero el Sumial, que también se usa para buscar cierta tranquilidad, comenzó a cambiar mi capacidad de concentración debido a su ingesta de años y mi memoria se deterioró. Incapaz de seguir el ritmo de trabajo en BNV, pedí la baja médica.

Más tarde llegaron los nódulos como naves invasoras que traían un nuevo mal, el hígado se veía poblado por pequeños tumores de variados tamaños de los cuales sobresalían varios más grandes que podrían ser cancerígenos, las fallidas biopsias no me salvaron de ser hospitalizado y mediante radiofrecuencia quemaron los nódulos de los que sospechaban su negatividad y al parecer todo salió bien. El hospital, era ya la segunda vez que me visitaba, ponerme el pijama, subirme a la cama móvil, los paseos del personal sanitario, las visitas siempre bien recibidas, mis amig+s, mis

herman+s y yo con una normalidad que debo de haber aprendido de performancear y sujetar la vida a un ritual que vivo con cada vez más tranquilidad y del que no acepto el dolor. *Vete dolor, no me harás daño.*[2]

…la constatación de la alteridad del cuerpo, otro cuerpo en el cuerpo, provoca no solo un combate entre lo que debía ser y lo que no es desde un punto de vista fisiológico, sino que increpa a la conciencia de sí provocando un otro que no esperas…

Una constante de mi cohabitación con el virus eran los comentarios de la gente que con afecto me decía: «Tienes muy buena cara, mejor que la anterior vez que te vi». Realmente era un consuelo, pero yo ya debía tener la cara reluciente como un espejo de tanta mejora; me recordaba a esos anuncios de detergentes que siempre lavan más blanco, debieron empezar con un tono gris sucio, pues si no, no se explica de dónde podría salir tanta blancura. La diferencia es que los comentarios sobre mi cara irradiaban cariño y cierta compasión y en los detergentes puro engaño publicitario.

Empezaron los rumores de que iban a salir nuevos medicamentos más eficaces para curar la hepatitis C; tenía un hígado compensado y destrozado y el fármaco nuevo no acababa de llegar. Cuando llegó y comenzó a ser aplicado de forma más o menos masiva gracias a la movilización de los enfermos de VHC, a la exposición pública de sus vidas, a la sensibilización de los medios por las acciones de unos enfermos que luchaban por todos nosotras, los miles y miles de afectados comenzaron a tener esperanza; al Gobierno del PP no le quedó más remedio que aprobar directivas para la receta de este medicamento, un protocolo que recogía su aplicación en primer lugar a todas los afectadas por la cirrosis. Los servicios de salud de las autonomías comenzaron a dispensar y pagar el medicamento a pesar del elevadísimo precio impuesto por las multinacionales farmacéuticas para quienes la curación no es más que un objeto de mercadeo sujeto a la ley de la oferta y la demanda sobre el cosificado enfermo al que ven como un valor que les produce beneficios.

Ya tenía el medicamento conmigo, su poder de curación según decían era cercano al 100%, no tenía efectos secundarios y debería tomarlo por seis meses, nada que ver con el interferón. Comencé a tomarlo con veneración, ¡aquí estaba la cercana sanación!, una lucha de igual a igual entre el virus y la pócima, un combate interior que debía restituirme a un lugar que había abandonado hacía catorce años, alejando de mí el cansancio crónico, el control de las horas de mi actividad, la recuperación de la ocupación perdida.

Los primeros controles fueron optimistas, el virus no estaba y así fue hasta el final de la medicación. Al primer control médico después de finalizar la prescripción Joaquín me acompañó, como

2 N.d.E. Los cierres de párrafo en cursiva a partir de este punto corresponden a referencias del autor a acciones y performances suyas anteriores. Por su parte, los insertos en negrita entre párrafos corresponden a texto inédito del autor y buscan sumar un nivel adicional de significación, a modo de hipertexto.

venía siendo habitual en los últimos años, dándome protección en la intemperie. Nos informaron de que el virus había vuelto a aparecer, el 100% se convirtió en 0%, la esperanza en frustración, la alegría en pena y todo comenzó a volverse gris y oscuro. En otra persona que conocí un día en la sala de espera también había fallado. Éramos los dos casos en todo el hospital

Hacía tiempo que era un caso de estudio, me veía derrotado, de nuevo pensar en cómo resurgir, desde dónde contemplar mi vida en medio de los otros, amigos, amigas, hermanos, hermanas, todo aquel que te ama y a quien tú amas es el refugio desde donde buscar la luz tranquila que nos prepare para todo, un todo habitable y sostenido en el corazón de quien te acompaña para elevarte y recomponer los hechos de cada día, redimensionar el espacio y el tiempo que te queda por vivir. *Tengo tiempo.*

Unos meses después, en un nuevo control, comienzan a hablarme de otro fármaco más potente, realizan pruebas en Granada analizando cuál es la combinación de principios activos más eficaz para mi caso y llegó el Harvoni, que contenía 90 mg de ledipasvir y 400 mg de sofosbuvir. Debía tomarlo un año cuando lo normal es seis meses, con ello intentaban rematar el virus. Es el cuarto tratamiento. Lo comienzo el 1 de marzo de 2016. Aparentemente no tiene efectos secundarios. No tengo ya una gran fe en que funcione. Me han definido como caso raro.

A los dos meses de la llegada del Harvoni una nueva cita de control, doy por supuesto que el virus ha desaparecido, siempre sucede, me acabo de hacer la última resonancia y el análisis de turno. Llego con Joaquín a la misma sala de espera de los últimos años, él es mi tranquilidad, entramos a las 14:30 h, era el 10 de mayo de 2016, nos sentamos delante de la mesa del doctor que comienza tras el saludo a leer en el ordenador los datos de las pruebas realizadas; de pronto nos comunica que los nódulos se han desarrollado con un gran tamaño, son malignos, asevera; con cara de preocupación dice que hay que suspender el tratamiento, Harvoni ha terminado su recorrido, no puede decirnos nada acerca de la existencia del VHC, el análisis no lo pedía; comenta que existe una circular que no es oficial pero a la que dan gran credibilidad que cuenta que unas investigaciones señalan que los enfermos que tienen nódulos de hepatocarcinoma en el hígado pueden ver gravemente acelerado su crecimiento por la ingesta de Harvoni, en mí ha sucedido. Todo lo que no debe suceder sucede. Apenas tres días antes estaba en Donostia presentando dentro del proyecto *Anarchivo sida* de Equipo re la acción *DERERUMNATURA Quien canta su mal espanta*.

El doctor continúa describiendo la situación, nos refiere que el protocolo de la hepatitis C no admite más recorrido, no hay esperanza de sanación, solo me puede dar unas pastillas que son un paliativo, me repite que son un paliativo, no curan, solo alargaran un poco la vida y tienen la posibilidad de que al tomarlas se produzcan una serie de efectos secundarios: boca inflamada, diarreas, picores… Joaquín y yo nos miramos, no dábamos crédito a lo que oíamos, me estaba diciendo que ya no había nada más que hacer, solo esperar que se produjera una crisis y se acabara lo que tanto había oído a lo largo de los años: tienes un hígado compensado. *AcuCHILLAd+s*

…activa las complejas interpretaciones sobre la finitud y cómo integrar el cambio de cuerpo en otra escena desde donde buscar la vida, no como anclaje sino como conciencia de ser otro por ti y por la relación con tu entorno afectivo, laboral, relacional…

Cuando salimos del hospital con el espantoso medicamento que me acababa de recetar, llamado Sorafenib, nos abrazamos entre lágrimas y enseguida comenzamos a intentar restituir una normalidad imposible. No recuerdo bien si ya en ese momento hablamos de buscar una segunda opinión, conté la nueva situación a mis hermanos, que hicieron lo imposible por animarme; estaba frente a una situación que me producía angustia tanto por mí como por la gente que quiero y me quiere; de todas formas ahora pienso que ante la adversidad tengo una cierta inconsciencia o consciencia que me tranquiliza y me sitúa paciente ante los hechos, creo que esta tranquilidad no nace del optimismo sino todo lo contrario y es en ese territorio de derrota, de pesimismo, donde actúa una cierta acomodación a lo que sucede, la impaciente paciencia. *Reflexión.*

Comencé a tomar las pastillas paliativas; los primeros días todo parecía normal, después el Sorafenib comenzó a desplegar sus efectos secundarios, todos los que me nombró se iban produciendo con el paso de los días, no paso a relatarlos, ese medicamento que no me curaría, que solo servía para retrasar el desarrollo de la crisis anunciada, me hizo padecer en los apenas veinte días que lo tomé lo que no había sufrido antes, me dejó hasta sin voz.

El 6 de junio de 2016 ya estaba sentado con mi hermano Manolo delante de la mesa del Dr. Brizeño en el hospital Reina Sofía de Córdoba; un familiar me había facilitado una cita con él y su equipo. Antes de la cita me habían realizado unos análisis para ver mi situación general; el desarrollo de la cita fue el siguiente: el doctor me comenta que su equipo viene realizando intervenciones en el hígado fuera de los protocolos oficiales, que las realiza desde hace dos años con resultados espectaculares, comenta que el que no estén en protocolo es debido a la lentitud con la que se transforman estos pero insiste en que su experiencia y el estado de mi hígado, compensado, hace viable una intervención consistente en la extirpación de al menos el 30% de la masa hepática, con ello eliminaría los nódulos con hepatocarcinoma que el Harvoni desarrolló de forma espectacular; la técnica a utilizar en la intervención es la laparoscopia, una técnica poco agresiva consistente en la introducción por pequeños cortes hechos en mi cuerpo de un instrumental sofisticado y diminuto que se guía dentro del cuerpo a través de un circuito de imágenes por ordenador; el trozo de hígado extirpado lo sacarían por un corte a la altura del ombligo. La operación durará muchas horas debido a la técnica de laparoscopia y la rehabilitación será muy rápida, naturalmente no garantiza la desaparición del virus pero si me informa de que la calidad de vida no tendrá nada que ver con la que iba arrastrando en los últimos años donde el tiempo y el espacio eran medidos en función de la débil resistencia de mi cuerpo. ¡Ah! y me quitó el Sorafenib, que me estaba dejando exhausto, lo cual me alegró sobremanera.

… La enfermedad es el cuerpo actuante autónomo que se disgrega y que obliga a posicionarse frente a ella desde una multiplicidad de reacciones que debes incorporar sin desechar ninguna, la rabia, el consuelo, el afecto, la esperanza y la desesperación: un camino vital…

La entrevista me dio mucha seguridad y di mi consentimiento para desarrollar el camino a la operación. El 16 de junio a las 8:00 h comenzó la intervención que duró más de seis horas, estaban tod+s mis herman+s y Joaquín, dentro del quirófano también estaba mi cuñada Teresa que es anestesista y tanto me ha ayudado a superar mi crisis, después me pasaron a la UCI durante 24 horas, fui despertando y me sentía bien, nada me dolía, cuando entraron a verme mis acompañantes me informaron de que todo había ido estupendamente. En una semana, el 23 de junio, me dieron el alta, la estancia en el hospital fue un continuo de cariño de los que me visitaban y me escribían, lo que más recuerdo era el apetito con que comía, las risas y lo contento que me iba poniendo por la mejoría que sentía cada día. Tras el alta, después de pasar un día con mis hermanos en casa de Manolo y Teresa y mi sobrina María, mis hermanas Teresa y Amparo se fueron a Madrid y marché a Granada con mi hermano Victorino que me cuidó lo primeros diez días, poco a poco me fueron quitando los puntos hasta que todos desaparecieron. Granada llena de amigos por todos los años que viví allí, tentado a decir los mejores por todo lo que gocé y aprendí. *Tránsito.*

Joaquín, mi amigo del alma, había decidido no separarse de mí en todo el camino hacia la recuperación, sobre todo después de que mi gran amigo Antonio Martínez de Tejada hubiera muerto víctima de un tumor cerebral mientras yo estaba en el hospital, mi hermano me lo dijo tres días después de estar en Granada. Me eché a llorar amargamente. Pero hablar de Antonio, de su enfermedad, de su forma de ser y de todo lo que ha significado en mi vida sería objeto de otro momento, aunque siento que me acompaña porque su recuerdo no se extingue con el tiempo y aún habita en los lugares que compartimos en Loja, en Los Caracolares donde él y yo tenemos nuestras casas en un espacio común. Allí, a mi casita de Loja, mi Alhambrita, *La gallarda,* como la bautizó Ortiz Nuevo, nos fuimos por unos días, necesitaba estar allí a pesar del calor que arremetió en julio, estaba tranquilo, Joaquín trabajaba con el ordenador y el móvil y se preocupaba de todo lo que nos hiciera falta. Pero el calor era sofocante y nos fuimos a Cabo Pino, a la costa cerca de Marbella, a la casa que Joaquín tiene con sus hermanos, también se vino Mati, mi compañera de banca en la facultad allá por los años setenta y hasta hoy… Los días pasaban y cada día me sentía mejor, a los dos o tres días ya me pude bañar en la playa, tapándome del sol las heridas, poco a poco los baños iban a más, cuánto disfrute ver el cuerpo renacer, sentirlo como un bien, todo iba con el viento a favor y así día a día llegamos al reencuentro con la consulta de aquel doctor que me explicó que el protocolo ya no daba más de sí y quedaba prácticamente desahuciado. Cuando entramos, antes de mirar nada, nos dijo que era prácticamente un error lo que habían hecho en Córdoba, que estaba fuera de protocolo y que no era ni siquiera un ensayo, a mí me daba igual lo que dijera, me sentía de otra forma, mucho mejor, pero cuando leyó el informe de la resonancia y vio los análisis se le cambió la cara y una vez superado su amor propio reconoció que

todo estaba funcionando mucho mejor, de pronto no dice «el virus ha desaparecido», Harvoni había triunfado en solo dos meses. Otra vez volvíamos a mirarnos Joaquín y yo con cara de extrañeza pero ya no serían las lágrimas sino el goce de haber acabado con una situación que parecía irreversible. *ReversiblelbisreveR*.

La algarabía que se formó en mi cuerpo era indescriptible, era como volver a un lugar del que te has alejado por mucho tiempo y al que siempre quisiste retornar; sé que es una vuelta imposible, algo ha cambiado de sitio y tras dieciséis años todo está más dañado, pero te recuerda una plenitud perdida y la habitas tal y como te la encuentras, algo ha desaparecido definitivamente, pero no tu ser desmemoriado que se reconstituye en otro que esperará un nuevo accidente, porque el mal siempre deja su rastro sobre la renovación. Bien y mal, mejor bien. Luchemos por tod+s. Un pavo real aparece.

Loja – Sevilla
Noviembre de 2016